

EKITALDI POLITIKOAK

PRENTSAURREKOA



TOKIA: Gasteizko egoitza. **HIZLARIAK:** Javier Rojo eta Nicolas Redondo Terreros. **GERTAKARIAK:** Kanpainako lehen prentsaurrekoa. Kanpotik etorritako kazetari ugari izan ziren. Hitzaldiaren ostean ez zen galderarik izan, horretarako aukera izan bazen ere.



PRENTSAURREKOA

TOKIA: Gasteizko Legebiltzarreko prentsa aretoa. **HIZLARIAK:** Javier Madrazo. **GERTAKARIAK:** Helegitea aurkeztu zuen Hauteskunde Batzordean, kanpainako lehen ekitaldiari ekin aurretik. TVEn PPK egiten egi duen manipulazioa salatzen zuen Batzordean

Redondok «beldurraren kanpaina» egitea egotzi dio Arzalluzi

Estatutua beste esparru juridiko bat lortzeko tresna ez dela ohartarazi du PSEko hautagaiak

Felix Iriarte | GASTEIZ

PPkoen eta abertzaleen arteko ika-mikan parte hartu nahi du PSE-EEk, baztertuta ez geratzeko. Hala erakutsi zuen atzo Nicolas Redondok, PSE-EEko lehendakariak, kanpainako lehen agerraldian. Izan ere, Arzalluzek bezperan egin zituen adierazpenak kritikatu zituen, buruzagi jeltzaleak Jaime Mayor Orejaren hautagaitza zalantzan jarri bazuen ere. «Arzalluzek beldurra sartu nahi du herritarrek gatibu bihurtzeko». Adierazpen horrekin erantzun dio buruzagi jeltzaleari. Hark, herenegun, ETBn egindako elkarrizketan esan zuen Jaime Mayor Oreja lehendakaria baltiz biolentzia gehiago izango dela, ETAk «justifikazio gehiago» izango lukeelako.

«Arzalluzek, agian, esan nahi du ETA lasaia izango dela lehendakaria abertzalea baltiz? Arzalluzek esaten diguna zera da, aitortu behar dugula ez garela herritar askeak, eta beti izango dela lehendakari abertzalea», ondorioztatu zuen Redondok, Arzalluzen hitzak hartuta.

«Beldurraren kanpainari» aurre egingo dio PSE-EEk, eta ira-



DAVID AGUILAR / EFE

Nicolas Redondo, PSE-EEko lehendakariak, kanpaina hasierako prentsaurrekoan.

bazten badu, beldur hori sartzeko saiatu direnak baztertu egingo ditu Jaurlaritza eratzeko. «Gobernu konstituzionala eratuko dugu, eta ez dugu itunik egingo Konstituzioa legitimatzen ez dutenekin. Ez dugu aliantzarik egingo Konstituzioa

indartu nahi ez dutenekin», esan zuen, abertzaleekiko aliantza gaitzetsiko duela berresteko.

Gernikako Estatutua betetzeko konpromisoa hartu zuen PSE-EEko lehendakariak; baina ohartarazi zuen Estatu-

tuak berak duela muga, ez dela beste esparru juridiko bat lortzeko «tresna», eta bigarren itze batekin josi zuen abertzaleekiko aliantzaren zerraldia.

Javier Rojo Arabako zerrendaburuak, bestalde, PPkoen eta sozialistaren arteko elkarlana

REDONDO

EHren botoak onartuko dituen argitzeko eskatu dio EAJ-EAri

Nicolas Redondok jakin nahi du Juan Jose Ibarretxe EAJ-EAko lehendakariak EHren botoak onartuko dituen lehendakari izateko. Hainbat aldiz egin dio galdera hori kanpainaren atarian, eta atzo berriro egin zion kanpainako lehen aukeran. «Nahi nuke Arzalluzek eta Egibarrek argitzea ea prest dauden HBren botoak onartzeko», esan zuen. Redondok, jakina, uste du EHko botoak emango dizkiola. Izan ere, hori ondorioztatu du bezperan Arnaldo Otegi egin zituen adierazpenetatik. EHko hautagaiak esan zuen Mayor Orejaren gainbehera hasi dela, eta ez dela lehendakari izango. Redondok kalkulatu du PPK eta PSE-EEk ez dutela gehiago absoluturik lortuko.

nabarmendu zuen. Arabako eredia aipatu zuen Rojok, EAEren geroa aurreikusteko. «Arabian inork ezin du esan lehen baino okerrago dagoela. Politikagintzari buelta eman diogu Araban, eta hori da Euskadinen egin nahi duguna», esan zuen.

Madrazok uste du PPK irabazten badu «haustura» gertuago izango dela gizartean

Erredakzioa | GASTEIZ

Javier Madrazo IU-EBko koordinatzaileak uste du PPK gobernatzaren badu Jaurlaritzan arrisku handiagoa izango dela gizartean; hausturarako arrisku handiagoa, hain zuzen ere. Hori dela eta, PSE-EEri eskatu dio ez egiteko bat Alderdi Popularrarekin.

«Jaime Mayor Orejari ez zaio axola euskal gizartea, haren helburu bakarra Ajuria Enean egotea da», ohartarazi zuen Madrazok. Hala ere, uste du PPKo lehendakariak ez duela lortuko helburua. «Oker dabil pentsatzen badu garai-pena sumindura eta gorrotoa erainez lortuko duela», esan

zuen. Madrazok uste du euskal gizarteak guztiz kontrakoa aldarrikatzen dutela, hau da, elkarrizketa nahi duela bakea eta normalizazioa erdiesteko.

Maiatzaren 14a, hauteskundeen ondorengo eguna, politikagintzari beste norabide bat emango zaion eguna izan behar da, Madrazoren aburuz, «elkarrizketak eta elkar ulertzeak liskarren aroari lekuko hartuko diotena».

PPk TVEn egiten duen manipulazioa salatzen du

PPren asmoekin bat ez egiteko eskatu zion PSE-EEri. «PSE-EEri eskatzen diot bat ez egiteko PPren sumindura politikarekin. Aliantza guztiak hautsi

behar ditu PPrekin», adierazi zuen.

Horiek guztiak esan zituen, PPK TVEn egiten dituen «manipulazioak» EAEko Hauteskunde Batzordean salatu eta gero. Madrazok uste du TVEk IU kaltetzen duela.

Madrazok eskatu du doako publizitatea alderdi bakoitzak duen eserlekuen arabera banatu behar dela, ez bakoitzaren botoen arabera, «orain arte egin den bezala».

Aldaketarik ez badago, IUK lau segundo besterik ez du izango Espainiako telebistaren deslotura egingo denean. «Izena agertzeko astirik ere ez genuke izango», kexatu da IUKo koordinatzailea.



TXEMA FERNANDEZ / EFE

Javier Madrazo, kanpainaren hasierako ekitaldian.

ESANAK

JAVIER MADRAZO

(IUKo koordinatzailea)

«Mayor Oreja oker dabil pentsatzen badu gorrotoarekin irabaziko duela»

«Euskadik integrazioaren aldeko eta liskarren aurkako apustua egingo du maiatzaren 13an»

«Mayor Orejari ez zaio axola euskal gizartea, Ajuria Enean egotea da haren helburu bakarra»